Euzkadi

AZIERA ONEKO BIDEAN

Umiak eren etxietan

¡Zein sakonki ezagutzen ditudan nik, gastetxoak, zuen izaeraren aldakuntzak. Goizian etxetik irtetzen zeratenian, egun batzuetan udaberria baizen alai zuazte txorian eran kantari. Nai baño ere obetogo irten zaitzute gauzak, nunbait. Egun osuan etxera azaldu gabe ibilliko ziñateko kalian zuen adiskidetxuekin joateri. ¡Ain ederki billi oi zerate olango egunetan...!

Beste egun batzuetan, berriz, -an ilbiltzeko arratsalde illun aien antzera otz eta beltz jeikitzen da zuen gogua. Irten etxetik eta bazuazte ezkolara. Iñoiz baño alegin oizragoak egin dituzute eguneko ikaskizunak ikasten; baña alperrik. ¿Zer gertatzen zaizute, bada? Eztakit; oso makalduta, zearo motelduta zabiltzate; ezin ezer buruan gelditu. Irakaslia asarretu da ta zigor bat ere ipiñi dizu gizajo orri; zure atzian zenguana aurreratu dizute ta zu atzeratu zaitue. Mingarri izan zaizu benetan orixe. Kalera irtetzean, zure adiskideak ixeketan eta parreka dituzu atzetik. Biotza lertzeko zorian dezu... ¡ura samintasuna, arek zotinkak! Estaukazu zure lagunekin jostatzen ibiltzeko gogo aundirik eta laisterka arin-arin etxera zuaz.

An, zure, ituntasuna nolabait oskutatu nai zenduke. Idiki ixil-ixilik atia ta ezkututa, baztertxuren baten biotz-barrena lasaitu nairik, sartezen zera.
Ezta andik urrin zure amatxo; sukalde-inguruan bere eginbearrak betetzen ari da. Begirakun zorrotza dauka-ta, zure begietako ituntasuna ikustean biotzean arantzaen bat ba-dezula laster igarri dizu. Eztira makalak izaten amaren begiak orretarako ta ¿nola eskutatu kolko-barruan zirika dezun naigabea? ¿Zer gertatu zaizu, semetxo laztana? Zatozkit onera; esaidazu zer egin dizuten maite orri". Eta moxuka ta laztanka magal goxuan arturik, ezkutuka zenduan arantza ateratzen dizu; eutsi-eziñik zendukan negar-ujola lasai-lasai irten zaizu begietatik beera... Jun da zure ituntasuna; amatxok maite zaitu ta ¡zer ardura zure lagunen irriparre ta txantxa zoroakaitik! Izan ere, gainera, etxian arkitzen zera ondoen naiziek dezunetan. An daude zure gurasoak; zure senideak ere bai. ¿Nun egon an baño goxokigo? ¿Ezta, ba, txoritua kabi-epelean ondoen egoten?

Sendia da umiarentzat lenengo ikas-tokia. An ikasten diran gauzak gaztearen izaeran gogor josita gelditzen dira; etxeko oiturak goguan ermo itsatsita irauten dute betiko. Ibillera ona ta joera zintza an tellatupian lenengo norberegandutzia da geroko joeraren oinarririk onena. Ume askok uste izaten dute ibillera egokia, izkera polita ta itxura garbia an etxetik-at irakastolan edo, beintzat, ezagutzen ez diran gizonen aurrian bakarrik azaldu bear dirala. Ez, ez; erru aundi bat da ori. Gertatu izan zaigu guri ere bein baño geiagotan gure ezagunen baten etxera juan eta uste ez genduan oitura itxusiak ango umien izaeran ikusita, arrituta gelditutzea.

GOIZEAN

Aintzinako esaera da: zartzaro-aldera osasuntsu iritxi nai ba-dezu, zure egunoroko egiñak aonelaxeñ banandu egitzatzu. Zortzi ordu lo-egiteko; zortzi lan egiteko; beste zortziak, berriz, atsedena artuaz, zure gogoko zaletasuna babesean soina ta barrua sendotzeko. Gabean amarretarako oeratu zaitez; goizean zazpiretarako zutik. Neguan otzak kikildute oetik irtetzeko dardaraz ba'de, itxartu aupada baten eta oinai ta besoei astindu batzuk eragiñaz laster aldenduko dezu egun osorako zure kikiltasuna ta otzbera.

Jeiki ondoren, arpegia ur otzakin garbitu bear da, belarriak, begiak eta dandana bildur-gabe arakatuz. Neskatxo batzuek amabi urtera elduta-ere ezdute eren txukuntasun-garbitasunak eta orrazketak bear bezela egiten jakiten. Guzti-guztiak jakin bear luketen eginbearra da, ba, ori; gauza erreza ta egokia. Gainera egin, gela txukundu ta gauza guztiak zuzendu ta era onean ipiñi arte, e'lukete neskatxoak eren lo-gelatik irten bear; gero etxekoandre izaten diraneko ikasi bearrik e'luke izango, beintzat, onelan. ¿Lotsagarria ezta, ba, neskatx askori gertatzen zaletena? Amazortzi urtera iritxita-ere, etxekoandriari dagozkion eginbearrak betetzen ez dute jakiten. Ezkontzeko bidian dira ta ez dakite ezer: ez etxeko baztarrak txukundutzen, ez lapikoa baneatzen, ezer ez. Ikasi egitzatzute orain egin bear oiek gero bezelako etxekoandretxu trebe-egokiak nork aukeratu izango du, noski.

Ara emen gazte guztiei ederto datorkien beste oitura batzuk. Goizero arpegia ur otzakin garbitu; asteoro atzazalak moztu; sarritan soin dana uren garbitu; illea geiegi luzatzen ez utzi. Egunero erabiltzen dituzuten gauzak, idazkortzak, arkatzak, ingurrastiak txukun gorde bear dituzute; ikastetxean daukazuten idazmaia garbi eduki. Edozein garaitan zuen gaiñetik zaintzalle daubazuten edonor zuen gauzak ikutera juango ba'litz, arpegia lotsaz gorritu gabe erakusteko eran euki zuen gauzatxoak. Arkatza ta idazkortza agiñakin dana mazpildu gabe; ingurrastiak idazkurez zikindu gabe gorde.

Gero, zuen soinak egokitu ondoren, etxetik irten baño len, eskolara juan baño len, zeozer adiraldu. ¿Bai al-dakizue an udaldian ondartzara dijuan ugerlariari zer gertatzen zaion? Uste zuan baño otzago dago ura ta murgil egiteko bildurrez ugiñetatik igesika otzikaraz ibiltzen da. Bildurra aldenduta bat-baten buru guztia murgildu ezkero, orduan, bai, ura atsegingarri. Orixe gertatzen da goizeko lenengo lanakin ere. Etxetik irten baño lenago nagikeria aldun bear; olan edozer eskuratzeko gert-gert dijua mutilla.

LARRABIDE.
(Yarraiko)

AZALPENAK

Agurrik maitekorrena egin dautsoe, bere aldunai, euzko-abenda onek. Ots-bat naiko ixan zan, guztijak Gernika'ko Zugatzaren itzalpian batzeko. Oraingo aldijan garrantsija nabaitu darua erri onek. Badaki bere askatasunak lortu gura badauz, lotan barik iratxarrik egon biar dabela. Eta aldunai erakutsi ixan dautsoe, eztoyazala Madrid era euren borondatez eta gura dabena atzemoteko, euzko errijak gura dabena ekarteko baño.

Autarkijak txindi barik emon dautsoez eta orain asko eskatuten dau- Aldunak zelako zama daroen sorbalda ganian nabaitu dagijela. Eztuaz eskari bat egitera. Ori gitxi ixango leitike. Justizijaren ixenain, Euzkadi'ren askatasunak billa duaz, goguantzako eta soñentzako askatasuna.

Askatasun ori eskatuteko ziyorik gurena, errasoirik ederrena auxe ixango yako, errijagandik ikasija baita: Euzko errijak, didarka eta abots batian eskatuten dauz bere antziñako lagijak. Kendu eutsoena bakarrik gura dau, ez berianik. Oraingo aldijetan garrantsi andija dauko orok eskatutia, ikusi dabe aldunak, errijak eurekin daguala.

Abertzliak agertu dogu, ezkarala naikotuten Araudi orregaz. Guretzako gauza gitxi dalako ori, baña Aberrija osatuten asteko bidia yakun ezkero taltxu ori bere ontzat artzen dogu. Aldunai argi esa tea dautsoegu, geure indarra, eta ez makala bere, eurekin daguala. An laidorik ixaten badabe, eztoguz artuko irañak aldunai egiñak legez, geuri egiñak legetxe baño.

Euzkadi'k urtero urtero jasan dauz España'ko gobernubaren laidunak eta irañak. Batian au emongo, bestian ori emongo, beti atzeratu ixan dabe emotia. Gaur luzeruago eztogu jasango burlerik.

Gernika'n ixan gintzan oroen bijotzak aldunakin batera duaz, baña antziñakuak egiten ebena egin barik, euren bijotzak bere Madrid era eruan eta aberrijatzaz aiztu. Emeko ixatiari josita gagoz, ikasi dogulako Irakasliarengandik, lenengo arazua aberrija yakida. Aldunak eztabe aiztu biar au. Fuerutzale asko ixaziran lenago bere, beña azkenian Españarr ak zirala esangaz dana amaituten eben, besterik lortu barik. Madrid'en euren zeregin gurena orixe zan: españatar zintzoenak eurak zirala.

Oraingo aldunak ori zertan esanik eztaukoe, errijak ori eztautsoe agindu ta Agindu gurena, geure askatasuna lortzia ixan da.

Aldunai errijak agindu dautseena zer dan, argiro dago Estatutoan idazita. Itz gitxitan esitu dabez euren nayak, gitxijagotan esituko doguz ezer lortzen ezpadabe Madrid'en.

Rodezno kondiak iñuan, ontzija ondatuten danian pozgarrija dala ontziño batian iges egitia, itsas altzuan ondatu ezgaitian. Bitartian itsasuan batera juatia atsegin yakon areñ, españatarrakin. Geure ustez ostera ontzija ondatuten danian barik denporaz gertau biar dira gaiztatuteko erak. Oa da bakarria juan, zoratuta dabiltzanakaz ontzijan juan baño.

Zoka edo lokarriz lotu gabe ontzira españatarrak eta ondatutenasi diran arren eztauzkube azke edo yagei itxi gura. Lokarri bat apurtu daigun ekaitza andijena dan orduban askenego lokarrija apurtuko dogu errez eta. Orixe da aldunen lana, aldabenen eran meetu lokarrijok, osuan apurtuten ezpadabez bere. Errijak eztira irozoten eta kotzetaten itzen bitartez. Itzak len zira entzuteko atsegingarri, orain egitiak gura doguz. Berpiztu garan orduban ezkara betetuten itzakaz, janari onagaz baño.

Aberrijaren nayak eztira erdiz erdizkuak, osuak baño ta aldunok zuur begoz zaletasun orrein otsa entzuteko.

LAUAXETA.

EGUNEKUA

EUZKADI'TIK

GERNIKA'KO AGUR EDERRA

Gernika'ra juan gintzazan, geure aldunai agur egiten. Zenbat inguru batu ete gintzan? Nork jakin, amaikatxu milla an ixan gintzan. Ogeta sortzi milla batek, iñuan, bestiak ogeta amar anei. Zenbakijak eztauzkube bijotzik ikututen, an ixan ziran oroen bijotz sutsubak baño. Arein adore bixijak eta euren poztasunak baño. Guztijak eldu ziran euzko zaletasunagaz, guztijak aberrijari dautsoen maitasun ona agertu nairik.

Gernika'ko Zugaitz deunaren itzalpian, eguna igaro yakun arin baño ariñago.

"Kerispe zabal artan jarririk
eginda euren batzarrak,
buztarri bari libre ta ederto
bixi ziran baizkaitarrak."

Antxe bixi ziran geure antziñakuak eta, antxe geurek bijotzak bere sututu gura dabe garantsitsu oneitan. Eztira gaurko egunak arkarren aurka ibiltekuak, guztijok batuta Alkarren leyan juatekuak baño. Zelako pozagaz agur egin geuntsoen.

GOXIAN

Goxan goiz asi ziran belbillak eta bultzijak notiñez beterik etorten Bitxabal guztijak beterik egozan eta bilbil bakotxean euzko ikurrin ba ikustenzan. Gernika'n ebiltrazan gaste aldrak bakotxari bere bidiak erakusten. Onetan Comisin Gestora lotza galduak agindu eben belbillai gura eben bidetik ibilten izteko. Orra zelako jauntxubak diran orreik.

MENDIGOXALIAK

Mendigoxaliak batu ziran anei edo geyago Muxika'ko erri inguruban Antxe eren ikurriñekaz batera lerro ederrak egiñik urten ziran, onela Gernika'n sartzeko asmoz. Gauzarik ederrena ixan yakun arein sarkerea. Txistu soñuz eta gudarijak bailiran, benetako poza sartu yakun barnera. Orrein geurekin daukaguzan artian eztaukogu bidurrik. Mendigoxiak abestiai euzkotarrak abestuten dabezan artian eztago bildur ez ikerarrik. Abertzaletasunaren kima ederrenak dozuz orreik. Besperan oñez urten ziran Bilbao'tik eta gau guztijan ibilli arren mendi zira, ez eben nekerik agertu eurak. Agirre zar batek iñuan legez, oneik gudarik bada laster urtengo dabe mendira. Orretarako gaste sendo ta sindunk dira. Agurrik samurrena eurai.

UDALETXIAN

Udaletxian batu ziran geure aldunak: Leizaola jauna, Agirre jauna, Pildain jauna, Urkixo jauna, Orexa jauna, Rodezno kondia, Oriol jauna, Egileor jaun ospetsuba. Onekin batera beste endore pillo bat eguan. Batzuk euren ikurriñakin eta guzti Ederto egiña. Udaletxik urten ziran ikurrin, soñulari, txistu eta mendigoxaliakin. Zelako ibildeun ederra. Kale ziar yentiak agur egiten eutsoen, txalo sustubakaz.

JAUPA NAGUSIJA

Union deritxon enparantzàn oindi ederra iragita eguan. Antxe Iturraran jaunak jaupa nagusija emon eban. Ben ben eta itzalez egozan entzule guztijak. Bilbao'ko Schola Cantorum deritxon ereslari aldreak abestu eban jaupa ederre, Perosi rena. Beste erri batzubetako abeslarijak bere an ziran. Gernika'ko Elai Alai'ko gestetxubak eta eresbatzak lagunduten eutsoela, Zubizarreta jaunaren menpian, ederto abestu eben. Eguzki argija bitartian agertu zan zeru barna. Orok egozan pozik eta maitasunez, Jaun altzuba eldu zan geure batzarraren nagusi egitera.

AGIRRE JAUNAREN OMENEZ

Etorri ziran eran atzera erdu ziran Udaletxera aldunak eta udalak. An batu ziran notiñak larregi ziran eta alkarren leyan ebiltzazan txeiguak atrapau eziñik. Erritxiñelak ostera zigorkaga galantak emoten ebezan yentiak uxatu nairik, baña alperrik zan. Ez eguan tokirik. Onetan agertu zan Agirre'tar Joseba Andoni jauna eta Ariño endoriaren eskubetatik jaso eban urrezko zigorra. Euzko errijak onela agertu ixan dautso bere maitasuna, jaun oneri Estatuto aldez egin dabezan lanak dirala-ta. Itz gitxitan eta negarka edo Agirre jaunak ezkartu ebazan guztijak eta Gora Euzkadi ots egin eban. Bere bi otzaren barruban ezin sartu eban alako poetasuna. Lan asko egin ostian, Jaungoikuak ordaintuten eutsozan lu onetan bere euzkoen bitartez. Aberrijak ezkerrik minenak ostera egin eutsoezan.

Ostian endoriak aurrezkuba egin eban. Ariño jaunak ankak gora jasoten dauz oraindik. Txalotubak ixan ziran.

BARRIRO ZELAYAN

Barriro zelaira eldu gintzan ango abesti entzuketak atsegin yakuzan ba-ta Schola'ko abeslariajak euzko abesterik maitekorronak kantau ebezan. "Erriko pestak" abestijak birritan abestu biar ixan eban. atsegin ixan yakoen oroi eta. "Elai Alai" aldrakuak bere euren dantzaketak egin ebezan. Ume txiki areik euzko usaña darijo alde orotatik. Espatadantza ikusgarrija da eurena. Ederlanetan jayuak dira bai, geure umetxubak. Olaeta jaunaren agindupian aurrera duaz. Amaikatxu txalo jo eutsezan yentiak.

BAZKARI-ORDUBA

Alatza dala dirudi geure jayetan jazoten dana: bazkari orduban bat bere ezta ikusten txaideetan. Gernika'n bere iñor etzeguala irudijan. Mendi ziar Zugaitz pietan batu ziran euzkotar zintzuak euren bazkarija jateko asmoz. Baklan orok jan eben geure aldunak Gernika'ko udalak emon eutsoen oturuntzian eguazan artian. Euzko abestijak alde orotatik entzuten ziran.

ITZALDIJAK

Arratsaldeko laurak eta erdijetan asi ziran itzaldijak egiten geure aldun jaunak. Lenen Orexa jauna mintzatu zan. Euzko erararez abertzale erara. Atsegin ixan yakunik eztogu esango, baño txarto bere etzan mintzatu. Zer eskatuko dabeen Madrid'en eta beti euzkotar agertuko dirala esan euskuban. Gero Oriol jaunaren ixenian Azpeitia'ko endore jauna mintzatu zan. Urrengo Pildain jaunak keya atara eban. Argi ta garbi, jaupari bateri yagokon eran atzaldu eban euzko errijaren eskubidia berak gura dabean eskatuteko: Madrid'en eztogula eskatu biar ezer iñuan, geuria dana atzemon baño. Euzkuai kultura erakusten datorzan batzuberi zigorkada ederrak emon eutsoezan. Errijau aurreratubena dala Europa guztijak agertu eban. Ikeragarrizko txaluak entzun ebezan.

Errijaren ixenain gero "Altzeta" jaunak itz ederrak egin ebazan. Gorala eban abertzaletasuna eta euzko antzean barik abertzale antzean berba egin eban, ederto erakuteirik, mendigoxalia zor dautsogueban aurrerapen "Altzeta"-ren itzetan ikusi zan eztala bardiña fuerutzaliai ixati eta abertzaliai ixatia.

Azkenez Agirre jaunak laburkiro eskertu eban eukozen agurra. Agur iñuan, baña agur ori eztzan luzaroarako. Laster barriro elduko ziran eurak Madrid aldetik, guztijai ezkarrek emoten. Arana eta Gojri geure Irakasliaren gomutari bere itz goxuak josi eutsozan.

EUZKO JAYA

Izlarijen ostian zelaya gastiak eurentrako artu eben. An batu ziran euzko yantzaketak egiteko asmoz. Geure antziñako yantza ederrak goralduteko, eztabe biar gaste oneik iñoren zirirık. Gaberarte danak ederto jolastu ziran.

LIZARRA ETA GERNIKA

Erri oneitan jazokun ederrak ixan diran. Gernika'n agertu zan euzko gogua, iñoren estalkirik baga. Emen orok euren abertzaletasuna agertu eben. Yente geyago egongo ete zanentz Lizarra'n batzuk iñoen, baña ez emen lako zaletasunik. Jeltzaletasunak bere azija erain dau Bizkaya'n eta orain ikusten dira igali ederrak. Pozik bijotzak daukoguz emeko jaori dala-ta. Ezkara beinguan aiztuko. Aldunan orain beteko dagijela eurak agindu ebena. Agur jaunak-, agur ta erdi.

ESPANIA'TIK

URRUTIZKIÑEKOEN OPORRALDIA

Urrutizkiñetako ugazabaen eta langilleen arteko auzia bere baten dago.

Bazkuneko idazkariak barrikatariairi esan deutsenez, zeregiñak oztopo barik egiten dira.

Egun guztian begirabide andiak artu ziran atzo, txinel eta errizain indarrak urrutizkin etxea ta alboak zaintzen ebezala.

Atzen-orduan aldunen Batzar-etxerako arjak eten egin ebezan.

BAZKUNAREN BATZAREA

Madril'dik.—Fuencarral deritxon antzokian batzartu ziran, euren artean andereño asko.

Urrutizkiñen arazoa zetan doan adierazo zan.

Itzegin ebenak Benito'tar Peliken, Alvarez Sotomayor eta Niembro'tar Kepa izan ziran. Au oporraren batzordekoa.

Lenak esan eban, oporraldia aintzat artu nai ez dau arren arazo larria dala, ta guzurra dirudiala ta lotsa dala Gobernuak atzerriko bazkun bateri laguntzea.

Bigarrenak Bazkunaren eta Gobernuaren arteko artu-emonak txartzat artu ebazan, eta baita urrutizkin zeregiñetarako gudamutillak erabili izatea bere.

Irugarrenak deadar egin eban egunokaz atxilotu dabez...akaitik, eta Segurantzietxetik igaro barik urrutizkin etxera erriazelako.

Atzoko oporraldia ezbear andi barik igaro zan. Lengo egunetan baino bake andiagoa izan zan.

Au ta guzti bere, atzen-orduan agun lodi bat eten zan, milla ta berreun ari biko, batez bere aldunen Batzar-etxerakoak.

ATZOKO AUTESKUNDEAK

Madril'dik.—Atzoko auteskundeak bake ederrean egin ziran, baina motel egon zan yentea. Autarki-leku zenbaitetara egun lagun bere etziran urreratu autarkia emoten.

PRIETO'REN ITZAK

Madril'dik.—Ondasuntza arazoa daukan ministruak barrikatariai esan deutsenez, beraren asmuz erabagi ei da Bartzelona'ko merkatu libreko yokoa eragoztea.

Gobernuan izan dira aburu edo eretxi askotarikoak, baina atzenean ortara yo bear izan da.

Merkatu libre orren yardukizuna aztertzeko batzorde aztertzale bat izendatu bear zala esan zan, baina Prieto'ren eretxiak urten eban aurrera.

SOZIALISTAN ALDUNSAILA

Prieto'k berak esan dauanez, sozialistak eun eta amairu aldun-agiri dabez Batzarrerako, ta eun eta bederatzi aldun: lauek agiri bikotxa izan, arean.

ZALAPARTA UGARI

Granada'ko komentu baten bonba bat lertu ei da.

Gaur asiko da opor guztizkoa Españi osoan. Ez gaude gauz onik ikusteko.

Cubiertas económicas
Para fábricas, talleres, pabellones, cimentaciones. Evitación humedades.
FIELTROS "ZINCO - RUBER"
Fabricación extranjera, impermeables e incombustibles.
Sociedad Artículos de Construcción
H. Amézaga, 12. — Bilbao. — Tel. 10.021.

ERIJETATIK

ZABALA TAR JOSU ZARRAUTZ'EN

Larumbat, goizeko amarrak dira. Nere lantegiyan nagola urrutizkin txirriya deika dago.

—Nor da?
—Barrena.
—Zer diyozu adiskide?
—Zabala Jauna etorri da, ta...
—Ta... zer esan nai zenduke?
—Atsegin izango zaizula uste izanik ongi etorriya ematia deitu dizut.
—Bereala Donosti'ra atera bear det eta or nazu zuen bila alkarrekin jun gaitean.
—¡Bejondeizula! "Sacrifiziyo" txiki bat egiñaz zurekin jungo gero. (Ustez ixilik esan diyo Zabala Jauna'ri Pikatu dik...)

Bereala Barrena Jauna'ren etxeratu naiz eta besarkatzen det Zabala'tar Josu, Sabindar abertzale zintzo eta sutsua.

Ekin diyogu Donostirantz, baño Barrenaren emaztiak baldintzo bat jartzen digu, eta da, bazkaldu bere etxean egin bear degula eta garaiz bazkaltzera etortzeko. Egiya esan bear ba'det... Barrena'ren emaztearen eskari onek ez nindun bete, baño nik ere "sacrifiziyo" txiki bat egiñaz agindu niyon bere naya egingo gendula.

Baguaz bilbelean Donostirantz. Gure Zabala aundiyak ekin diyo edesten Amerikako abertzaletasun gora berak. Gutxiyen uste gendunean ekiten ziyon, Euzkadi'ko, baserri, mendi, zelai eta ibai edertasunak goraltzen eta nere biotza ere maitakor nabaitzen nuben eta Barrena jauna bildurrez ikusten nuben esanaz bere adiskide kutunari.

—Zabala, kontuz, kontuz, Mendi-Lauta'ri biotza ukutu diyok eta bildur naiz Euzkadi'ko ibai zoragarrira murkil egingo ote degun...

Donosti'ko karrikeian ebilialdi bat egin ondoren Barrena jaunaren etxeratuko gera bazkarita eta bere sendiyaz gaña, Zinkunegi, osalari eta abertzale zintzoa eta antziñako euzkel idazle "Zubi-Ondo" zai daude.

bazkayatzaz itzegiteko bildur, naiz, gogalpenarekin. Barrena'ren emaztea eta alaben arpegiyak gorrituko ote ditudan. Enua bazkari "komentariyorik" egitera, bakarrik esango det Zabala jaunak esan zubena, "Donosti'ko Hotel Maria Cristina'n juba'gendu ere, obetuago ez... "Zerbaitegatik nai zuben Barrena'ren emazte eta alabak beren etxean bazkaltzen...

Janariya ona izan ba zan, bertako jardun-aldiyak ere ez dira noiz nai izaten. Ni beintzat amar urte gaztetu nintzan ikusirik Zabala jauna'ren abertzaletasun bizkor eta sutsua.

Geltokiratu giñan agurtzeko. Eskuak eta bularrak estutu ondoren ekin diyo bultziak, bai ta ere gutxiyen uste gendunean Zabala'k irrintzi bulartsu batekin eta geldokiyan geunden guziyon zoraturik geratu giñan eta abertzaleak alkarri begira begiyak beraturik. Ba zirudin euzko mendiyen muñetatik ateratako ir...tziya zala Gabeko amabiyak inguruan amets ikaragarriya egin det. Zabala'tar Josu'ren irrintzi zoragarriya entzun det. Euzkadi'ko mendiyak euzkotar mendigoizalea betiak daude euzko ikurriña zabalduta Zabala'tar Josu buru dala. Gudarostean naiz ni ere eta une zoragarri batean esnatu naiz abesten.

Azkatasun eguzkiya
Basotik urten da.

Zabala'tar Josu, Sabindar abertzale zintzo eta sutsua. Ongo etorriya.

MENDI-LAUTA.

Orri onetan euzkel iragarkiak ikusten dabezan irakurleak iragarkia ipiñi dabenaren etxean erosi gurako dau, beragaz ulertuteko euzkeraz izpartuten dana ba anaietzat eukiko dau

ERMU'TIK

URKO'RI

Zure barikuko erdel-atalian, agertzen zeunstazun benetako agurra, bada jakin dagizun, sartu zaidala biotzaren barren-barrenara, eta arlau beredin opa dautzut zeuri ere, nik ez dakidan arren nor zarau, ez dio ajola; or dua nere agurra.

ZALDIBARTERA

Igaro yakun igandean, bai zan burrundaria uri onetan, nik uste neban Untzana'ra etorri zirala, kurlamiñ aldra aundia bat. Ateratzen eben zaratia, guztiz zan aritzekua, eta urten nebanian gertauta etxetik, morraltxua arturik, txaidera orduko jausi nintzan kontuan: au ez dok kurlamiña taldia: orrek dituk, antxina "Auspo-Lagua"-zan aldriakuak. Ni bildur ikaraz euren artian sartzeko, eskuan neban makilla gora jaso ta, ezan neban (por si las moscas) baña oker nenguan. Onek dituk mutillak; ez da Iudian ere, euron lakorik, artu ninduen onduan be ondo.

Bai zekarren, tun-tuna, eta beran ondorian, neskatilla gazte liraintxo bat, "Kepe", gure Txindurri; jatorran alaba gaztia, atzetik aldra-eder bat, bai guaz Eitzaga auzanean gora, eta nun idoro egiten ditugun, Eibar'ko mendigoxale Jaiki-ko aldra eder bat, eurena tin-tun eta ikurrin da guzi. ¡Zer poza zer atsegiña alkar ikertu-eta besartu ondorez, arduari gora bat egin eta aurrera jarraitu geuntson mendianri. Goxa artu genduan, baña "Gaza" auzoumeara juatia, an sabelak berdindu, eta akeita beroa artu endorez, asi yakun tun-tun zaratia eta zer gerteitan ote zan gengozala, or neskatilla aldra bat, aurreskua egin biar daubela ta. ¡Demontriena! onek dituk aparajuak! ¡Zer ba egin be, gero, neuk, gogotsu txalotzen nituan, ikusirik euren alattasuna, au amaitu endorian abesturik euskel abesti pilla bat Zaldibar'ko txakora bigurtu giñan, neskatilla bi aurren genduzala, gure ikurrin ederra bizkarrian ebela, an genduzan Zaldibar'tarrak gertu, euren besuak zabel-zabel eginda gu besartzeko ¡zer gauza ederra! zer atsegintsua? Ama baten sendija laztantzen. Andik aurrerak arazuatzaz enua sartzen, luza egin biar yata-ta.

IKURRIN BERRIA

Orain aldi gutxi dala, autolatu dan, bazkun berriak, Emakume Abertzale Batzak, artu du asmo sendo bat: emengo Batzokia'ri, ikurrni berri bat egitia. Ortarako autu dute, batzorde bat, gauzia aurrera eramateko. Ori ori, emakumiak, ez otan egon.

APAINKETIA

Entzun dodanez, gure Jel aretua, jai aurrian apaintzeko asmua dute, gure gaztiak, ikusgarriz imintzeko amasak ditubez. Gañeko egun baten, eij dira etorteko margolariak. Apaindu apaindu, mutillak, neu ere an aurkituko nozu, beti Untzanian ezek ezer eta.

UNTZAMATARRA.

¡Agur Jaunak!

Esaten eben "il da betiko"
"Euzkeldunen arazua".
Ondiño baña gu bixi gara...
Goyan bego... "Lengusua"
Autsa ganera boteutsen baña...
azpijan eguan sua;
Autsoi kentzeko naikua izan da
Iparraren putz gozua,
Su ta garretan ipiñi dogu
Bero Euzkadi osua,
Sasi-sastrakak erre bioguz
Garbitu bedar-lekua...
¡Sutik ba danok zar eta gazte
Lagun arturik Jainkua!
Gure aldun jaun onairi egin
Laguntza egiazkua
Madri'ra jun da, bildurrik barik
Jaurtirik guda zantzua,
Gurendaz goyan jarri dagiyen
Euzkadi biotzekua.

Gaztelatiko negute luze
Negu baltz iguingarrijak
Aritz deunari kendu eutsazan
Ezkurrak eta orrijak;
Aspaldi baña, gure artera
Eldu yakun udaldijak
Sortuko dautsoz aritz orreri
Orri ta ezkur barrijak.
¡Zutik ba danok... goguak biztu
Ene arreba ta anayak!
Goiko Jaunari biotzez egiñ,
Arren, otoi eskarijak,
Batzar-tokiko zugatz ganian
Abestu daien txorijak.
Azpijan giton argijak
Eginik lege garbijak:
Zorioneko askatasuna
Izan deiñ Euzkal-Errijak.

Maite daiguzan Euzkalerriko
Uri, baserri, mendijak,
Iturritxuak, ibar-zelai ta
Euzkaldun lorategijak,
Maite asaben Euzkera zarra,
Maite oitura garbijak;
Izan gaitezan Kistar-euzkeldun
Urtzi'ren maitagarrijak,
Ta Berak ziur emongo dauzkuz
Zorun-eskar ugarijak.
Zeinduko gaituz gure Deun Mikel
Euzkadi'ren Zaindarijak,
Beren zerutar ezpatarekin
Autzirik etzai gustijak.
¡Agur ta gora gure aldun jaun
Euzkaldun zintzo argijak!
Madrillen esan egijak,
Jaritxi garaitz andijak;
Gure biotzak zeuekin dagoz.
¡Gora euzkeldun guztijak!

ENBEITA'TAR KEPA.

AZPEITI'TIK

KUKUA

Ixildu da: ta badirudi berarekin batera Azpeitiko Idazleak ere ixildu dirala. Nik aspaldi onetan beta aundirik eduki ezpadet ere zuek jarraitu bear ziñioten garai batean, alkarri lekurik egiñ eziñik ibilli giñan, ta oraiñ denok ixildu? Esnatu gaitean denok Aberriyaren.

Askatasunerako Gure Erri onetan badirudi lur onean aziya zabaldu dala; beragatik landare berri oyek sendotu ta indartu bear ditugu. Euskelzale aretoan noizean bein itz-aldi batzuek egin bear lirazke; orra nere iritziya.

PESTAK

Aspaldi onetan makiñatxo bat izan ditugu bañan ez nola naikuak; Aberkoyak. Azpeitiareak, ederki erantzun dezute dei egiñ zazuten garaian. Milla esker guztioi baita ere eskerrak eman bear dizkiot bezandu bada ere, Urrustillako neskatilla Euskal-zalei, aiñ apaiñ ta ederki Deun Jon egunean azaldu ziralako ta Deun Iñaki egunean orrelaxe azaltzen zeraten, zuek ikusteko gogo aundiya dago gure Erri onetan. Eta ia biyotza pizten diozuten emengo neskatxa buru ariñai, ta Aurrera.

ALKARTASUNA

Zer da? Ederki ikusi degu juan diran Auteskundetan; ura zan anaitasuna; ura zan erriko pakea; ura zan indarra; jakiñ dezatela, etsai lotsagabe oien Azpeitiko Erriya sinismen utsakua dala: Euzkotarra dala; Aita Iñaki Deunaren erriya dala; pake zalea dala; bañan etsayan aurrian bildurrik ez duala; ta txiki ta aundi, zar ta gazte, aberatz eta utxiro, danok bat gerala, ta Jaunak, nai izan dezala, batasun au, iraunkorra izan dedilla.

Ta oraiñ beste iritzi bat.

Alkartasunak oren beste indar orren beste onura Errizako duan ezkero Euzko Langilleak zer egin bear degu? Ez ote gera bildu edo batuko? esnatu gaitezen, zergatik etsaiya lanean ari zaigu gure Euskalerri onetan, bateko comunista, besteko sozialista, ta dalako sindikalista; beren gezua, ta abarrakin gure biyotz garbiak pozoik esai dituzte. Guk ere badegu geure Bazkuna, Eusko Langillearena; bere arautegia guztiz ederki jarriya dauka ta betetzen erraxa da. Esnatu gaitezen bada Euskotarrak eta danok bat egiñik zaindu dezagun gure Aberri Euzkadi maitea.

ARAUNTZ MENDI.

GUZURA

EZTOZU ZEURE ABERRI GAIZKATASUNIK NAI, "EUZKADI" EZTAN BESTE IZPARRINGIRIK IRAKURTEN BADOZU

JATABE'TIK

AUTESKUNDIAK

Onetara gelditu ziran igaziriko, auteskundietan erri onetan:
Euzko Araudijaren aldez, 82 autarki.
Aurka, 7.

Ezkenduban uste iñor be geure errijan euzko Araudijaren aurka juango zanik baña bedar txarra edonun erneten da ta banakan batzuk euzkotarrak eta euren odola zelan zapalduten daben jakiñ arren beren amurruba erakutsi dabe. Benetan lotsagarri ori egitia da ta zentzun apurbat daukonak bere aberrijari ez leukijo egin biar olako txakurkerijak.

Uzkurtza lenago ta Aberriako maitasuna euzkotarrak gure Euzkadi'n erakutsitia gauza audirik eztogu uste danik. Baña atzerijan luzaro ibillikuak eta oindiño dabiltzenak siñismena ta abertzaletasuna galdurik geure arerlok biurtuten dira. Orra or zelako onurak ekartzen dauskubezan arrotzakaz ibilten diranak.

URTEURRENA

Beste urtietan lez aurtenguaz bere, amaikagarren urteurrena zala ta Arrieta'tar Gayetan zanaren gogo aldez aren alaba Jonek ginduta erri onetako txadonan elizkizun bat egon zan bertan egonik bere seme alabak. Bere azkeneko gurarija ori zan da urtero betetzen da.

JATABETARRA.

LA AZUCENA
Fábrica de flores — Plaza Nueva, 12

GRANITOL
CUERO ARTIFICIAL
Reemplaza ventajosamente al natural, siendo mucho más ECONOMICO y RESISTENTE. INALTERABLE, LAVABLE y más HIGIENICO.
Para TAPIZADO DE MUEBLES Y AUTOMOVILES.
ARTICULOS DE VIAJE, MARROQUINERIA, ETC
Unico depositario en España:
R. M. NOSWORTHY
Central: Barcelona, Valencia, 225. — Sucursal: Madrid, Arrieta, 18